

Bageraren buletina

2019 martxoa

Kaixo bagerakide!

Martxoko buletinaren bidez, hilabete honetan eskuartean ditugun eginkizun nagusien berri eman nahi dizugu.

Bikografiak: bi ibilbide elkarrizketan

Martxotik aurrera ekimen berria jarriko dugu martxan. Tobacco Days liburudendan egingo diren solasaldi informalak izango dira, biografia linguistikoak oinarrian hartuz, euskararen biziberritzearen gako nagusiak lantzea da helburua. Gai soziolinguistikoek gure esperientzia pertsonaletan eta eguneroko bizitzetan duten isla agerian jarri nahi dugu: ditugun bizipenak, gogoetak, kontraesanak eta abar. Horretarako bi gonbidatu elkarrizketatuko ditu gidari lanetan arituko den beste batek.

Urtean, 3-4 elkarrizketa egingo ditugu 19:00etatik 20:30era Tabakalerako Tobacco Days liburudendan. Adi!

Izarrak Plazara 2019

Aurten, Izarrak Plazara lehiaketaren 8. edizioa izango da. Ekimena Intxaurrendoko Plazara Goaz euskara batzordetik sortu zen, eta gaur egun, Bagera Elkartek, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuarekin, Donostiako Gazteria sailarekin eta Donostia Kulturarekin batera antolatzen du.

Egitasmoaren helburua gazteak elkarrekin ondo pasatuz sormen artistikoa euskaraz sustatzea da. 5-17 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendua dago eta izen ematea zabalik da martxoaren 22a arte. [Gehiago irakurri](#)

Mintzodromoa San Telmo Museoa

Martxoaren 27an izango da hurrengo mintzodromoa San Telmo Museoa. Ohi bezala bi txanda izango dira, lehena goizeko 10:00etan eta bigarrena 11:00etan. Parte hartzera animatuz gero, txanda batean edo bitan jarri gurekin harremanetan.

Elkarrizketa Filosofikoak

Martxoaren 4an, 19:00etan, izango da hilabete honetako Elkarrizketa Filosofikoa Urrats Euskaltegian. Oraingoan iraultzaren bideragarritasunaz (Brigada Gorrien borrokaz hausnarketa) arituko gara. Erabiliko den testua: "Brigada Gorriak" Argiako testua (2018/12/02). [Irakurgaia deskargatu](#)

Ibilaldiak euskaraz

Donostiatik

Martxoaren 5ean hasiko gara Donostian zehar ibilbideak euskaraz egiten. Hitzordua 09:30ean Kursaleko albo batean dagoen Ni neu kafetegiaren ondoan izango da. Ibilbideak **astearte eta ostiraletan** egingo ditugu, ordu eta erdiko iraupena izango dute eta 10 km ingurukoak izango dira. Hala ere, eguraldiaren arabera malguak izango dira. Ibilbide hauen helburua kirola eginez euskaraz aritzea da. Informazio gehiago behar baduzu Bagera Elkartera deitu.



Kantu Jira

Martxoaren 16an, Parte Zaharreko Fermin Calbeton kalean, 12:00etan izango da hilabete honetako Donostiako Kantu Jira. Lagunekin batera euskal kanta tradizionalak abesteko aukera paregabea. Animatu eta parte hartu!

OHARRA

Martxoaren 8an mugimendu feministak proposatutako GREBA deialdiarekin bat egitea erabaki dugu Bagerako langileok eta egun horretan bulegoa itxita egongo da.

Upategira martxoaren 30ean

Martxoaren 30ean bi upategietara joango gara, lehenik Vianako Ondarre bisitatuko dugu eta bertan hamaiketako egingo dugu, ondoren Logroñoko Olarra upategira joango gara eta bisita egin ondoren, bertan bazkalduko dugu. Bueltan Lizarran ordubeteko geldialditxo bat egingo dugu.

Autobusez joango gara eta goizeko 09:30ean aterako da, itzulera 21:00etarako Donostian. Izen ematea mugatua izango da, beraz, azkar ibili tokirik gabe gelditu nahi ez baduzu. Izena emateko Bagera Elkartean izena eman eta ES33 30350092570920042476 kontuan 22 euroko diru sarrera egin behar da kontzeptuan izen eta abizenak jarritz.

Izen emate epea martxoaren 28an bukatuko da (hala ere lehenago betez gero, izen ematea itxiko da).

Hurrengo irteera apirilaren 6an izango da, Azkizura joango gara Xotei txakolindegia bisitatzera, egun horretan mendizaleekin (Aia- Pagoeta) elkartuko gara eta elkarrekin bazkalduko dugu, gorde eguna zuen agendan!

21. KORRIKA

Aek-k antolatzen duen euskararen aldeko lasterketa erraldoia apirilaren 4an Garesen hasi, eta 10 egunez gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du hogeita batgarrenez, apirilaren 14an Gasteizera heldu arte. Donostiatik **apirilaren 12an** pasako da (ostirala).

Donostiako auzoetan, hainbat ekimen antolatuko dituzte hilabetean zehar eta animatu nahi zaituztegu berauetan parte hartzera. Informazioa www.bagera.eus webgunean eskuragarri izango duzue.

Korrika arropa erosi edota oparitu nahi izanez gero, hona hemen Donostiako dendaren ordutegi eta informazioa:

Lekua: Aldamar kalea, 1 behea .

Ordutegia:

Ostegunetan eta ostiraletan: 17:00-20:00.

Larunbatetan eta igandetan: 10:30-13:30 eta 17:00-20:00.

[Katalogoa ikusi](#)



AUZOAK

Egia

Martxoaren 1ean, 19:00etan, Korrika Kulturalaren baitan, Egiako euskara batzordeak eta Egia Bizirik auzo elkarteak "[Erradikalak gara](#)" bertso ikuskizuna antolatu dute Le Bukowskin.

Agenda laburtua

Martxoak 4, astelehena, 19:00etan "[Elkarrizketa Filosofikoak](#)" Urrats Euskaltegian.

Martxoak 5, asteartea, 9:30ean "[Ibilaldiak Donostiatik Euskaraz](#)" Kursaal ondoan (astearte/ostiral).

Martxoak 16, larunbata, 12:00etan "[Kantu Jira](#)" Fermin Calbeton kaletik abiatuta.

Martxoak 27, asteazkena, 10:00etan eta 11:00etan "[Mintzodromoa](#)" San Telmo Museoa.

Martxoak 30, larunbata, 9:30ean "[Upategira irteera](#)" autobus geltokian.